

Albisteak

Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutua

Euskal Herriko Zuzenbidea eta instituzio juridiko historikoak ikertzeko xedea izango zuen erakunde baten beharra zegoela ikusirik, 2000ko uztailean Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutua (EHZHI) sortu eta jendaurrean ezagutzera eman zen. Ordura arte lanean baziharduen ere, data horretan finkatu behar da bere jaiotza ofiziala.

Joseba Agirreazkuenaga izan da bertako zuzendaria, harik eta 2003ko martxoan bere lekukoa José Manuel Castellsek hartu duen arte. Kontseilu Errektorea osatzen dutenak, berriz, hauek ditugu: Gregorio Monreal Zia (zuzendari zientifikoa), M^a Rosa Ayerbe Iribar (idazkaria), Jon Arrieta Alberdi (liburuzaina), Eduardo J. Alonso Olea (diruzaina), Juan Igartua Salaverria, Jon Koldobika Urrutia Mingo, eta Virginia Tamayo Salaberria. EHZHIren kudeaketa administratiboa, berriz, Roldán Jimeno Arangurenen esku dago 2002ko otsailaz geroztik.

Institutu hau eratzeko asmoa ez da berria. Jada 1931n, Bonifacio de Echegaray legelari eta historialariak Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorrari euskal Zuzenbidea aztertuko zuen organismo bat eratzeko egokitasuna ikusi zuen. Hainbat urte geroago, Donostiako Zuzenbide Fakultateko irakasle talde batek ideia horri eutsi dio, batik bat 1978an Konstituzio espainiarra onartu zenetik eskubide historikoek euskal autonomian daukaten eragina ikuspegi historiko-juridiko batetik aztertzeke beharrak bultzatuta. Institutu hau, beraz, Unibertsitateari atxikitako entitate autonomoa da.

EHZHIaren zereginen artean honakoak azpimarratu beharko liriateke: urtez urte gai monografiko baten inguruko *Symposium* bat antolatzea; *Symposium* horren emaitzak jasoko lituzkeen liburu bat argitaratzea, Euskal Herriko Zuzenbide Historikoari buruzko liburutegi birtual bat sortzea, eta Foru Aldundiak Euskal Herriko Zuzenbide Historikoaren inguruan egindako kontsulta juridiko-historikoei erantzuna ematea.

Institutu honen jendaurreko lehenengo agerpena, nahiz eta orduan oraindik behin-behineko erakunde bat izan, Donostiako Zuzenbide Fakultatean 1993ko abenduan *Euskal Herriko Zuzenbide Historikoaren Kuestioaren egoe-rari buruzko Jardunaldi*-etan egin zuen.

Aipatu behar da jada bi *Symposium* antolatu dituela: lehenengoa, 2001eko azaroan, *Euskal Herriko lurraldeetako Zuzenbide Historikoa: sortzaile eta eragileak* izenekoa. EHZHIren ekitaldi hau oso jendetsua izan zen, eta Juan José Ibarretxe lehendakaria arduratu zen jardunaldiei hasiera emateaz. Bigarren *Symposium*-a, berriz, 2002ko abenduan izan zen, oraingoan aztergaia *Euskal Herriko lurraldeetako merkataritza askatasuna eta aduanak* izanik. Bata zein bestea, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Gradu aretoan izan ziren, Donostian. Jardunaldi hauen guztien emaitzak biltzeko, EHZHIak *Notitia Vasconiae* liburuaren ematen du argitara. Horrela, jada atera du lehenengo *Symposium*-eko hitzaldi, debate saio eta beste hainbat jakingai jasotzen dituen urtekari mardula, eta bidean da hurrengoa.

Nolanahi ere, gehiago dira bere argitalpenak. Hiru multzotan sailka daitezke: batetik, EHZHIren beraren argitalpenak daude (M^a Rosa Ayerbe Iribar eta María Obieta Villalonga ditugu orain arte prestatuturikoen egileak); bestetik, Foru Ogasunaren Klasikoak bilduma (Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailarekin lankidetzan), eta, hirugarrenik, Foru Ogasunaren doktore tesiak (hau ere aipaturiko Sailarekin lankidetzan).

Bukatzeke, aipatu Donostiako *Villa Asunción* etxean daukala bere egoitza, Elosegi alkatearen hiribideko 275 zenbakian.



Joseba Agirreazkuenaga, Roman Sudupe eta Gregorio Monreal, I. Symposium

Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna eta Nafarroa

2001. urtean, Espainiako Erresumak Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna (Europako Kontseiluak Estrasburgon 1992ko azaroaren 5ean egina) berretsi zuen (BOE 2001eko irailaren 15ekoa). Hitzarmen horren helburua, Itunaren zio azalpenak dioenez, hizkuntza gutxituak babestea da, kultura-ondare izan arren mehatxatuta daudelako, baina ez hiztunen eskubideak bermatzea. Itunaren arabera, Estatu kontratatzaile bakoitzak zein hizkuntzen gaineko ardura hartzen duen adierazi behar du berrespena egiterakoan (3.1 artikulua). Espainiak zera agindu zuen: Estatu Autonomia Estatutuek aintzat hartzen dituzten hizkuntza guztiak (ofizialek eta baita ofizialtzat jo gabe ere babestu beharreko jotzen dituztenek) merezi dutela Itunak ematen dien babesa.

Itunaren 15. artikulua dio Estatu kontratatzaileek eraman duten hizkuntza-politikari buruzko txostenak aurkeztu behar-ko dizkiotela Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari aldiari aldiari. Lehen txostena aurkezteko epea bete denez –Ituna indarrean sartu eta hurrengo urtean aurkeztu behar da–, Espainiako Estatuak eta autonomia erkidegoetako gobernuek, Eusko Jauriaritzak eta Nafarroako Gobernuak horien artean, gertu dituzte beren informea. Hizkuntzaren aldeko defentsan aritzen diren zenbait erakunde ere bere informea aurkezteko asmoa du. Aipatzekoa da Nafarroako Euskara Kultur Elkargoa (EKE) Foru Komunitatearen egoera zitalaren berri zorrotza emateko egiten ari diren ahalegina. Hizkuntzen Urteko abenduaren 14 eta 15ean aditu talde bat bildu zuen EKEk Iruñan, *Eleria* barne, Nafarroan euskarak bizi duen egoera aztertzeko asmoz. Bertara aurkeztu zuen informea euskararen alde egiten duten elkarte eta gune guztietara zabaldu da gerora.

Euskararen egoeraren berri ematen duten txostenak Europako Kontseiluak izendaturiko adituen lantalde batek aztertu-ko ditu (16. artikulua). Aipaturiko lantaldeak Estuari bere iritzia eskatu ahal izango dio, eta baita emandako informazioa osa dezan eskatu. Ondoren, Adituen Lantaldeak bere txostena tajutuko du bildutako datuak oinarri hartuta eta Ministroen Lantaldeari aurkeztuko dio. Azken honek Estatu kontratatzaileei gomendioak egin ahal izango dizkie beren betekizun eta urrapenen gainean. Gomendio horiek argitara eman ahal izango dira, gainontzeko Estatu sinatzaile guz-
tiek ezagutu ditzaten.

Aurtengo urtearen amaieran jakingo dugu, beraz, zein ohar egiten dizkion Europako Kontseiluak Espainiako Estuari hizkuntza gutxituen gaineko babesari dagokionez.

Dudarik ez dago, azken hiru urteotan bederen, Itunak jasotzen dituen betekizun horietatik gehien alden du den gober-
nua Nafarroakoa izan dela. Kritika ugari jaso du 2001eko urtarilean indarrean sartu zen Nafarroako Gobernuaren abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuak –aurreko 135/1994 Foru Dekretua desmaten duenak–. Dekretu horrek eremu ez-euskaldunaren pareko egiten zuen, praktikan, eremu mistoa. Horren erakusgarri aipa liteke, esate baterako, zirkuitu administratibo elebidunak martxan jartzeko aukera desagertarazi egiten duela. Dekretuaren zio azalpenak zera dio: aurreko araudiaren gehiegikeriak (*ultra vires* direlako xedapenak) zuzentzeko eta elebiduna ez den Komunitate batean euskararen erabilerak sortzen zituen arazoak konpontzeko egin dela erreforma. Esanguratsua da, halaber, 1994ko Dekretuak jasotzen zuen Hizkuntza Gutxituen Itunaren erreferentzia kendu izana. Dekretu berriaren defenda-
tzaileek beren jarrera azaldu nahi izan dute esanaz arau horren bitartez herritar guztiak administrazio publikoaren lan-
postuetarako aukera berdinak eman nahi izan zaizkiela.

Dekretu horren garapen gisara etorri ziren gerora 2001eko urtarilaren 8ko Akordioa, eremu mistoari buruzkoa, eta 2001eko otsailaren 5ekoa, eremu euskaldunean enplegu deialdiarako merezimenduen barruan hizkuntzak jakitearen gainekoa. Aipaturiko akordioaren arabera, Nafarroako Administrazioan sartzeko orduan, “bidezko” denean bakarrik hartu ahal izango da kontuan euskara –aurreko Dekretuarekin 4,50 puntu ematen ziren eremu euskaldunetan lanpostuetara-
ko eta 2,25 eremu mistorako lekualdatze lehiaketetan; orain, berriz, 2,20 eta 2,10 hurrenez hurren–.

Neurri horiek auzitegietara eraman zituzten Nafarroako hainbat elkarte, sindikatu, alderdi politiko eta entitate lokalek. Ondorioz, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak oso-osorik baliogabetu zuen 372/2000 Foru Dekretua forma akatsak direla eta, Gobernuak ezinbesteko bi tramite ahaztu baitzituen: Nafarroako Euskararen Kontseiluaren eta Funtzio Publikorako Zuzendaritza Nagusiaren txostenak, hain zuzen ere.

Edonola ere, Miguel Sanzen Gobernuak harro erantzun zion epaiari, erabakia jakin eta berehala eduki berdineko Foru Dekretua promulgatuko zuela mehatxatuz. Horretarako, uztailean bertan Euskararen Kontseilua berritzeari ekin zion. Gogora dezagun Kontseilu horretako kide ia guztiak –Administrazioko ordezkari zirenek izan ezik– dimisioa aurkeztu zutela 1999ko urtarilean. Agindutakoa bete berri du Miguel Sanzek, eta aurrekoaren berdin-berdina den Dekretu bat onartu du (29/2003 Foru Dekretua, 2003ko otsailaren 10ekoa). Aurreko Dekretuarekiko alde bakarra da xedapen iragankor bitartez agintzen dela errotulazio elebidunaren ordezkari gaztelaniazkoa jartzeko aginduak aurrekontuaren arabera emango direla.

Esandakoez gain, beste hainbat neurri ere hartu ditu UPNko Gobernuak joan den urtean, zein baino zein murrizkorra-
goak: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikotik kanpo geratzea, euskarazko komunikabideei diru laguntza murriztea, Euskaltzaindiarekin Itun berezitua egitea...

Zuzenbide Publikoari buruzko IV. Jardunaldiak

2002ko urriaren 25ean, Eusko Jauriaritzaren Bilboko Areto Nagusian, Zuzenbide Publikoaren hainbat alderdi aztertu zituzten, euskaraz guztiak ere. Horrela, aurkezpene Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria den Jon Koldobika Urrutia Mingo jaunak egin ostean, Iñigo Urrutia Libarona *Telefonia mugikorreko instalakuntzen erregimen juridikoa* azaldu zuen; Silbia Sarasola Gorritik *Zerbitzu publiko lokalaren emakida egungo merkatu ekonomiako ere-*

duan; Luis Elizegi Mendizabalek *Hirigintza arloko gaur eguneko arazoak Toki Administrazioari dagokionean*; eta Xabier Arzo Santistebanek *Administrazioaren zehatzeko ahalmena eta udal ordenantzak*. Aipaturiko lau hizlariak Euskal Herriko Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakasleak ditugu.

Espezialitateko hizkera eta terminologiari buruzko jardunaldiak

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak *Espezialitateko hizkerak eta terminologia* gaiari buruzko jardunaldiak antolatu zituen 2002ko irailean. Hiru egunetan zehar, terminologiaren alderdi ezberdinak aztertzen aritu ziren, hala nola, eta besteak beste, Terminologiarekin lan egiteko metodologiak, Terminologia datu baseak, Euskararen inguruko hainbat arazo terminologiko, etab. Jardunaldi hauei hasiera emateko, Manuel Montero EHUKo errektorea, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Juan Jose Larrea EHUKo Euskara errektoreordea eta Xabier Alberdi, EHUKo Euskara Institutuko kidea bildu ziren mahaiean. Hauen ondoren, aditu talde euskaldunek zein autonomia erkidego ezberdinetatik etorriek jardun zuten aipaturiko gaia lantzen.



Mercé Lorente, Pompeu Fabra Unibertsitateko irakaslea, bere hitzaldia ematen.

Erregistro Zibileko idazpenak hizkuntza autonomikoan ere egiteko proposamena

Diputatuen Kongresuak baiezkoa eman zion, apirilaren 1ean, Kataluniako Parlamentuak 1957ko Erregistro Zibilaren Legea aldatzeko egindako proposamenari. Alex Masllorens diputatu sozialistak aurkeztutako proposamenaren xedea zen aurrerantzean Erregistro Zibileko idazpenak gaztelaniaz ez ezik, autonomia erkidego bakoitzean bertako Autonomia Estatutuaren arabera ofizial den hizkuntzan ere egin ahal izatea. Aipatu behar da hamargarren aldia zela Kataluniako Parlamentuak Kongresuan gisa honetako proposamen bat aurkezten zuela.

Eusko Ikaskuntzako azken berriak

Web onenaren saria jaso du Eusko Ikaskuntzak

El Correo Digital aldizkariak Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen artean web orri onena izatearen saria eman dio Eusko Ikaskuntzari (www.eusko-ikaskuntza.org). Sarearen bitartez euskal kultura sustatzen duen web orri honetan, internautek, besteak beste, Eusko Ikaskuntzak antolatzen dituen internet bidezko master eta ikastaroei buruzko informazioa, argitalpenen datu baseak eta liburutegi birtual bat aurkituko dituzte.

Bost arlotan banatu dira sariak, Interneten garatutako lana saritzatzeko; hots, enpresen mailan, erakundeen mailan –atal honetantxe jaso du saria Eusko Ikaskuntzak–, aisialdi/zerbitzuen mailan, web pertsonalen mailan, eta ikusleek emanikoa. Sariak banatzeko ekitaldia Bilboko Guggenheim museoan egin da, Minerva Piquero eguraldi emakumea izanik aurkezle.

Giza Eskubideei eta Europar Batasunari buruzko ikastaro berriak

Eusko Ikaskuntzaren baitako Asmoz Fundazioak ikastaro berri batzuk eskainiko ditu datorren 2003-2004 ikasturtean Internet bidez. Horien artean, aipatzekoak dira Giza Eskubideei buruzkoa, eta Europar Batasuneko instituzio eta politiken ingurukoa.

Giza Eskubideei buruzko ikastaroak 250 orduko iraupena izango du, eta, oro har, giza eskubideak munduan zehar zein egoeratan dauden aztertuko da, eta urratzen diren kasuetan nola jokatu behar den adieraziko. Europar Batasuneko instituzio eta politiken inguruko ikastaroa laburragoa izango da, 100 ordukoa, eta bertan ordenamendu juridikoa, botere legegile, exekutibo zein judiziala, eta arau nahiz politika europarrak landu eta aplikatzeko mekanismoak aztertuko dira, besteak beste. Ikus www.asmoz.org.

Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresuaren emaitzak biltzen dituen argitalpena

Eusko Ikaskuntzak bere XV. Kongresua antolatu zuen 2001eko azaroan, *Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikokoak* izenburupean. Hamaika herrialde ezberdinetatik etorritako adituek, zientzia, kultura zein arteak hirugarren milurtekoaren ateetan Euskal Herrian bizi duten egoera eta teknologia berriek beren garapenean duten eragina aztertu zuten hainbat egunez, eta orain, haien guztien hitzaldi zein komunikazio guztiak biltzen dituzten bi liburi eta CD-Rom bat argitaratu ditu. Azpimarratzekoak dira edukiaren goi maila, Kongresuan ateratako ondorioen garrantzia eta argitalpen honen beraren kalitatea.


Bibliografia

Monografiak

CASTELLS ARTECHE, Miguel. *Idazki-ereduak: alderdien idazkiak, zigor-arlokoak, benetako prozesuetan oinarritutakoak.*

Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001; 1.340 or.

Euskaraz eta gaztelaniaz, Miguel Castellsek arlo penaleko idazki ereduak biltzen dituen hiru liburukiz osatutako bilduma prestatu du, Justizia Administrazioan euskararen normalkuntzak aurrera egin dezan pauso garrantzitsu bat emanez.



EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. *Egoitza judizialen plana.* Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002; 58 or.

Euskadin Justizia Administrazioa Modernizatzeke Planaren berri ematen du bereziki hiritarrei zuzenduta dagoen argitalpen txukun eta argigarri honek. Besteak beste, Justizia Administrazioaren Informatizazio Plana eta Justizia Jauregi berriak aurkezten dizkigu.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA, HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA. *Foru-lege zibilak: Euskal Autonomia*


Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2002; 591 or.

Liburu honek Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko foru lege zibilak biltzen ditu, euskaraz zein gaztelaniaz. Era berean, aurkibide analitikoa eta hiztegi elebidunak ere badauzka.



MARTÍNEZ BURUAGA, Susana; LÓPEZ, César; CAMPO ANTONANZAS, Fernando. *Idazki-ereduak: adingabeen erantzukizun penala arautzen duen 5/2000 Legea, urtarrilaren 12koa.*

Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002; 279 or.



EUSKO JAURLARITZA. *Ekonomia ituna.*

Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002; 181 or.

Liburu honetan, Ekonomia Ituna eta 2002-2006 Bosturteko Kupoia Zehazteko Legea biltzen dira beren osotasunean, artikuluz artikulua, euskaraz eta gaztelaniaz.



MARTÍNEZ BURUAGA, Susana; LÓPEZ, César; CAMPO ANTONANZAS, Fernando. *Idazki-ereduak: alderdien idazkiak, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioak.* Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002; 825 or.




Artikuluak

BURLADA ETXEBESTE, Inés María. "Sinpekoen zereginak", "Prozesu penalaren bermea", "Alderdien galdeketa enjuiziamendu zibil lege berrian" In: *Revista Vasca de Derecho Procesal y Arbitraje, XIV.2 zkia.*, 2002; 341-355 orr. Artikulu honetan zinpekoen zereginak azaltzen dira, doktrinak eta jurisprudenziak horren inguruan diotena aztertuz.



Hizkuntza

ELOSEGI ALDASORO, Antton. *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologia.* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2002; 598 or. Antton Elosegi irakasleak Zuzenbideko hizkeraren gainean aurkeztutako doktore tesia jasotzen du liburu honek. Bi zati bereiz daitezke bertan: batetik, Zuzenbideko hizkera berezia aztertzen du, eta bestetik euskal hizkera juridikoko corpus bat.




EUSKARA KULTUR ELKAR-GOIA. *Hizkuntzen Europako Urtea. Euskararen egoera juridikoa Nafarroan*, 2002; 163 or. Hizkuntzen Europako Urtea ospatzen zenez, eta Espainiako Gobernuak Europako Hizkuntza Gutxituen Gutuna berrets berria zuenez, Euskara Kultur Elkarteak euskarak Nafarroan bizi duen egoerari buruzko Jardunaldiak antolatu zituen 2001eko abenduan Iruñan, eta hain zuzen ere bertan egindako gogoetak biltzen ditu liburu honetan, euskaraz zein gaztelaniaz.



Itzulpenak

KARRERA EGIALDE, Mikel Mari. *Ondazilegi.* Itzultzailea: María Paz Martín Orio. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2002; 140 or. Udal eta probintzietako artxi-boetan jasotako agiriak oinarritzat hartuz, ondazilegi izeneko lursail edo mendien azterketa juridikoa egin du Mikel Mari Karrera irakasleak liburu honetan, bereziki beren aurrekari historikoak, ezaugarriak, antzeko figurak, izaera juridikoa, eskubidearen edukia, etab. landuz.



Tesien txokoa*

Administrazio Zuzenbidea

ABRUÑA PUYOL, Antonio: *La validez del acto administrativo en el ordenamiento peruano.* U: NU. Ur: 2002. Z: José Luis Martínez López-Muñiz.

OLABARRI SANTOS, Manuel María: *El régimen especial de producción de electricidad.* U: NU. Ur: 2002. Z: Francisco de Borja López-Jurado Escribano.

Lan Zuzenbidea

TULIO BARROSO, Fabio: *La ley del contrato de trabajo por plazo determinado de Brasil. Configuración técnica y estudio de su régimen jurídico* U: DU. Ur: 2001. Z: Luis Monereo Pérez.

VELASCO PORTERO, M^a Teresa: *El ámbito subjetivo individual del derecho de libertad sindical en el ordenamiento jurídico español.* U: DU. Ur: 2001. Z: Gaspar Rul-Lan Buades.

Merkataritza Zuzenbidea

AGUAS ALCALDE, Emilio: *Tributación internacional de los rendimientos del trabajo.* U: NU. Ur: 2002. Z: Eugenio Simón Acosta.

LECOURT, Arnaud: *Le juge et l'économie.* U: Paue. Ur: 2001. Z: Bernard Saintourens.

Nazioarteko Zuzenbidea

SIRIA DE PÉREZ, Isabel Marina: *La transformación estructural de los estados centroamericanos a través de la problemática de la descentralización.* U: EHU. Ur: 2001. Z: Noe Cornago Prieto.

Zuzenbidearen Filosofia

DÍAZ DE TERÁN VELASCO, M^a Cruz: *Derecho y nueva eugenesia: un estudio de la Ley 35/88 de Técnicas de reproducción asistida.* U: NU. Ur: 2002. Z: Ángela Aparisi Miralles.

ELÓSEGUI ICHASO, María: *Las acciones positivas para la igualdad de oportunidades laborales entre mujeres y hombres. Un análisis de la legislación alemana y la Directiva 76/207/CEE desde la Teoría de la argumentación de Robert Alexy.* U: NU. Ur: 2002. Z: Juan José Gil Cremades.

Zuzenbidearen Historia

ZUBIRI JAURRIETA, Amparo: *El origen comunal de los helechales del Noroeste del Pirineo navarro: de los repartos y ventas.* U: NU. Ur: 2002. Z: Joaquín Salcedo Izu.

Zuzenbide Publikoa

BARBER BURUSCO, M^a Soledad: *Actos preparatorios punibles (caracterización de la conspiración, proposición y provocación para cometer determinados delitos).* U: NUP. Ur: 2001. Z: Miguel Díaz y García Conlledo.

RIAÑO BRUN, Iñaki: *Ejercicio judicial de la acción subrogatoria.* U: NUP. Ur: 2001. Z: José M^a Rifá Soler.

SARTHOU, Alexa: *Droit communautaire et droit de la Convention européenne des droits de l'homme: contribution à l'étude des rapports entre deux ordres juridiques.* U: Paue. Ur: 2001. Z: Joël Molinier.

SILVA SERNAQUE, Santos Alfonso: *Control social. Neoliberalismo y derecho penal. Apuntes para entender el Perú de hoy.* U: EHU. Ur: 2001. Z: Ignacio Muñagorri Lagua.

Zuzenbide Zibila

RODRIGUEZ, Karine: *Le droit commun des groupements personifiés.* U: Paue. Ur: 2001. Z: Michel Menjuq.

TROS DE YLARDUYA GUERENDIAIN, Javier: *El pacto indemnizatorio en la extinción del contrato, sin justa causa, del deportista profesional.* U: NU. Ur: 2001. Z: Luis Arechederra Aranzadi.

* Euskal Herriko unibertsitateetan defendatutako Zuzenbideko Doktorego Tesien zerrenda; hau da, Euskal Herriko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Deustuko Unibertsitatean eta Pauko Unibertsitatean.

Laburduren zerrenda:

U: Unibertsitatea
Ur: Urtea
Z: Zuzendaria

Unibertsitateak:

DU: Deustuko Unibertsitatea
EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea
NU: Nafarroako Unibertsitatea
NUP: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Paue: Paue-ko Unibertsitatea

Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

1.1. Lege proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena
Mahats ardoaren antolaketaarako	2002.12.10	2002.12.13
Izatezko bikoteei aplika dakiekeen araubide juridikoa arautzekoa	2002.12.23	2003.01.17
Euskadin giza eskubideen eta askatasunen defentsa zainduko duen behatoki bat eratzeko	2003.01.22	2003.01.31
Gizarteko Bazterkeriaren aurkako Legea aldatzen duena	2003.02.04	2003.02.07
Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen Legea aldatzekoa	2003.03.18	2003.03.21

1.2. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legea aldatzeko	2003.02.04	EAJ eta EA	2003.02.07

2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena
Nafarroako Foru Komunitatean goi irakaskuntzan euskara erabiltzeari buruzkoa	2002.05.07	2002.05.27
Nafarroako 2001eko Kontu Orokorrei buruzkoa	2002.09.09	2003.03.03
Animalien Osasunari buruzko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa	2002.10.23	2002.11.04
Hainbat zerga eta neurri tributarioen aldaketa partzialari buruzkoa	2002.11.12	2002.11.14

* OHARRA: Irakurle, lege proiektu hauek 2003ko apirilaren 7an zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitalpena bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.

ITURRIA: Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko mahaiaik.

Arauaren izena

Sarrera eguna

Argitalpena

Nafarroako udalentsako konpentsazio ekonomiko sistema bat ezartzeari buruzkoa	2002.12.02	2002.12.16
Nafarroako Sinboloei buruzkoa	2002.12.20	2002.02.05
Osasunbideako erizainen karrera profesionalaren sistema arautzeari buruzkoa	2002.12.31	2003.02.05
Animalien Osasunari buruzko 11/2000 Foru Legeko 14.4 artikulua derogatzeari buruzkoa	2003.02.20	2003.03.03
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Sailaren beharrei erantzuteko 5.100.000 euroko ezohiko kreditua ematekoa	2003.02.28	2003.03.07
Nafarroako Foru Komunitatean iazko otsailean izandako uholdeek kalteturikoen aldeko neurriak finkatzekoa	2003.02.28	2003.03.07

2.2. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena

Sarrera eguna

Proposatzailea

Espedientea

Larrako erreserba naturala eta bere ingurua berriro mugatzekoa	2002.10.30	CDN	Pro - 52/02
Gaueko argiztapenaren ordenazioari buruzkoa	2002.10.31	Rubio Salvatierra andrea (Talde Mistoa)	Pro - 53/02
Nafarroako Merkataritza arautzen duen 17/2001 Foru Legea aldatzekoa	2002.11.22	Aierdi Fernández de Barrena jauna (EA/EAJ)	Pro - 54/02
Merkataritza Minoristako Aholku Batzordearen osaketa arautzekoa	2002.11.27	CDN	Pro - 55/02
Osasunbideako erizainen karrera profesionalaren sistema arautzekoa	2002.12.05	CDN	Pro - 56/02
Eskubide Sozialen Gutunerako 9/1999 Foru Legea aldatzekoa	2002.12.30	Nafarroako Ezker Batua	Pro - 57/02
Ingurumenerako Kontseilu Nafarra sortzeko 1/1993 Foru Legea aldatzekoa	2003.01.14	CDN	Pro - 1/03
Gaixoaren eskubideei buruzko 11/2002 Foru Legea partzialki aldatzekoa	2003.01.30	UPN	Pro - 2/03
Nafarroako Polizien Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bateratua onartzen duen 213/2002 Foru Dekretu Legegileko 35 eta 43. artikulua aldatzekoa	2003.02.06	EA/EAJ	Pro - 3/03